



DISKOA

Barruko orroa askatu



Sharon Stoner talde oñatiarreko kideak.



ERRAIETATIK SHARON STONER

AUTOEKOIZPENA, 2019

IKER BANDIARAN

Oñatiko hirukotea 2004an desku-bitu nuen Danbeka Debagoieneko musika lehiaketaren lehen edizioan izena eman zutenean. Betirako gelditu den erdi txantxazko izenpean Kaliforniako desertuko stonerra Euskal Herrira ekarri, Araotzeko haizebihurriarekin iragazi eta bere ukitu propioa emanez aitzindariak izan ziren. Zarketa-
ren gitarra riff irudimentsu eta korapilatsuek, Egoitzen bateria taupada sarkor eta marrazkilariek, eta Iñigoren baxua jotzeko era pendulo-biderkatzaile zein ahots melodia gorenek txundituta utzi zituzten lehiaketako epaimahaia eta, jakina, ikusleak. Lehen saria eskuratu eta estreinako diskoa kaleratu zuten.

Kanta horiek 3.000 bira eman zituzten agertokietan eta askoren musika

aparatuetan, energia, intentsitatea eta melodia barra-barra baitute. Gerora kaleratuko zuten *13 taupada*, osatuagoa, borobilagoa eta bihotzetik eginaz gain, buruarekin planifikatutako lan bikaina. Horri jarraituko zion *Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak* diskoak: lan horrek irudikatzen du garaian taldeki-deek zituzten musika gustu zabalak eta anitzak; horregatik, aurreiritziak albo-ratuta, bestelako tempoak eta giroak ere hartu zituen bere baitan.

Orain, atsedean luze baten ostean, bueltan datoz eguneroko itogarriari denbora lapurtuz, horixe behar dutelako, erraiaetik, musika egin eta plaza-ratu. *Loto-lorea*-k argi uzten du ahotsak tonu altuagoa hartuko duela. Stoner zama badu ere, melodikoagoa da, pau-

satuagoa eta erdi tempoekin misterio-tsua bilakatzen da. *Sateliteak* stonerra-goia eta espazialagoa da, erdi tempoekin jokatuz. *Otso*-k oinarri irmoa dauka, baina dantza egiten du erritmo latino, flamenko eta progresiboarekin. *Inozoen salbamena* rockeroena da eta QOTSA dauka zainetan. *Zirkuluan* oso melodikoa bada ere, instrumental progresiboan amiltzen da. *Maskara* hondeatzaile lokaztua da, zikina eta bortitza. *Gela iluna* heavya eta euskal kantagintza ezkontzeko gai. *Sorgindu* kanta *in crescendo* hazten doan pieza melodikoa. Eta, azkenik, *Agurra* 60ko hamarkadako kutsu handia duen pieza poperoa.

Bueltan da Sharon Stoner, helduago, anitzago eta jakintsuago! ●